

## 2. PRAKTIKA

# MIAKETA ERRADIOGRAFIKOA

### ***Egileak:***

García-De La Fuente AM, Estefanía-Fresco R, Aguirre-Zorzano L A

OCW-2016

## HELBURUA

EZAGUTU NOLA EGIN BEHAR DUGUN SEGIDA ERRADIOGRAFIKOA  
TEKNIKA PARALELOA ERABILIZ.

Miaketa erradiografikoa oinarrizkoa da diagnostiko periodontala egiteko. Erradiografieiei esker, albeolar-hezurraren anatomia eta lotailu periodontalaren zabalera zuzen ikusiko ditugu.

Hori dela eta, datu klinikoak eta erradiografikoak erabiliko ditugu diagnostiko periodontala ondo egiteko.

Horrela hezur-galera angeluarra eta horizontala, besteak beste, diagnostikatuko ditugu.

Pazienteak azterketa periodikoak behar izango ditu (MANTENTZE-TERAPIA) eta batzuetan, gerta liteke, erradiografia berriak beharrezkoa izatea; horrexegatik, garrantzitsua da OSO miaketa erradiografikoak egiterakoan, **giza estandarizatua erabiltzea.**

KONPARAKETA AHAL EGITEKO

PARALELIZAGAILUAK  
ERABILIZ  
(*Teknika paraleloa*)



Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre

## **MATERIALA**

Segida erradiografikoa egiteko hurrengo tresneria erabiliko da:

**Paralelizagailuak**: atzekoak/aurrekoak/ hegal-ausikiarenak

**Erradiografiak**:

- 6 haur-erradiografiak (txikiak) (aurreko periapikalak)
  - 4: goiko eta beheko ebakortza lateralak eta letaginak ateratzeko
  - 2: goiko eta beheko ebakortza zentralak ateratzeko
- 10 heldu-erradiografiak (handiak):
  - 2: hegal-ausikiren erradiografiak egiteko
  - 8: aurreko-haginak eta haginak ateratzeko



## METODOLOGIA

Erradiografia txikiak jarrera bertikalean erabiliko ditugu, erradiografia handiak, berriz, jarrera horizontalean erabiliko ditugu irudiak ateratzeko.

Begiratu ondo erradiografieiei.

Denek daukate filmaren ertz batean puntu bat: "**puntu nabarmendua**" edo "**identifikazio-puntua**" deitzen dena



Egileak: A. M García, R. Estefanía eta LA Aguirre


## METODOLOGIA

✓ HARTU FILMA ETA IKUSI NON DAGOEN : IDENTIKAZIO-PUNTUA

✓ **IDENTIFIKAZIO-PUNTUA IPINI BETI LEKU BEREAN,  
ERRADIOGRAFIAK ERRAZ ANTOLATZEKO eta MUNTAKETA EGITEKO**

**ADIB: Erx txikiak: ezkerreko goiko aldean**

**ADIB: Erx handiak: eskuineko goiko aldean**




Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre

## METODOLOGIA

✓ Hartu erradiografia-kokagailu edo paralelizagailu eta muntatu:

❖ Paralelizagailuaren zatiak:

- Adar/beso adierazlea  
(Aurreko/atzeko/hegal-ausikiarekoak)
- Enfokatzeko-eraztuna
- Porta-filma




Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre




## ERRADIOGRAFIA-KOKAGAILUA/PARALELIZAGAILUA


Ikusi nola paralelizagailuak kolore ezberdinakoak diren. Paralelizagailu bakoitzaren atal guztiak kolore berezkoak dira, errezago muntaketa egiteko



Hegal-ausikiarenak



Aurrekoaldekoa




Atzekoaldekoa

### GAILUKO ZATIAK:

- ✓ ADAR/BESO ADIERAZLEA
- ✓ ENFOKATZEKO-ERAZTUNA
- ✓ PORTA-FILMA

## HEGAL-AUSIKIAK EGITEKO PARELIZAGAILUA




Portafilma

Beso adierazlea

Enfokatzeko eraztuna

Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre

## AURREKOALDEKOA



*Enfokatzeko eraztuna*


*Porta-filma*

*Beso/adar adierazlea*

Egileak: A. M García, R. Estefanía eta LA Aguirre

## METODOLOGIA

### Aurreko paralelizagailuaren muntaketa



HARTU PORTA-FILMA ETA  
AURREKO ADAR-ADIERAZLEA

BEGIRATU PORTA-FILMAN  
ZULOTXOAK DAUDELA.


HOR BARRUAN ADAR-  
ADIERAZLEA FINKATZEKO.

HORI EGIN OSTEAN, IPINI  
ENFOKATZEKO ERAZTUNA

PARALELIZAGAILUA PREST  
DAGO ERABILTZEKO.


Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre

## Atzekoaldekoa



## **METODOLOGIA**

### **Atzeko paralelizagailuaren muntaketa**



Egileak: A. M García, R. Estefanía eta LA Aguirre

**HARTU PORTA-FILMA ETA  
ATZEKO ADAR-ADIERAZLEA**

**BEGIRATU PORTA-FILMAN  
ZULOTXOAK DAUDELA**

**HOR BARRUAN ADAR-  
ADIERAZLEA FINKATZEKO**

**HORI EGIN OSTEAN, IPINI  
ENFOKATZEKO ERAZTUNA**

**ERRADIOGRAFIA-KOKAGAILUA  
PREST DAGO ERABILTZEKO.**

## **METODOLOGIA**

Filma muntatu eta gero, jarri ahoaren barruan.

Esaiozu, pazienteari ahoa ixteko, eta bere goiko eta beheko hortzekin eutsiko du porta-filma; horrela erradiografia-kokagailua finko eta posizio egokian geratuko da

Gero erabili enfokatzeko eraztuna erreferentzia gisa X-izpietako konoa jartzeko.



Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre

## **METODOLOGIA:**

Paralelizagailuei dagokionez:

1. Koadrante eta 3. Koadrante egiteko gailu era berean muntatuta erabiltzen da.

2. eta 4. Koadranteei buruz, berdin.

Pazienteekin hurrengo sekuentzia:

**Aurreko hortzak**

**Atzeko hortzak:**

- ✓ 1. Koadranteko A-H/H
- ✓ 3. Koadranteko A-H/H
- ✓ 4. Koadranteko A-H/H
- ✓ 2. Koadranteko A-H/H




Egileak: A. M García, R. Estefania eta LA Aguirre




## METODOLOGIA

Begiratu irudiak: atzeko paralelizagailua erabilia 4. eta 2. koadrantea




Egileak: A. M García, R. Estefanía eta LA Aguirre



## METODOLOGIA

Begiratu irudiak: aurreko paralelizagailuaren erabilia goiko uztaian eta hegal-ausikiaren erabilia.



Egileak: A. M García, R. Estefanía eta LA Aguirre

